



SARRERA

Arkaitz eta Nagore gara, Goierriko (Gipuzkoa) bikote bat. Txiki-txikitatik gustatu izan zaigu kanpinen mundua eta batetik bestera ibiltzea. 2014an hasi ginen furgonetaz bidaiatzen, eta harrezkero hau izan da bidaiatzeko eta leku berriak ezagutzeko modua.

Furgonetaz egindako bidaiak, Euskal Herriaz gain, beste hainbat herrialde ezagutzeko aukera eman digute. Horrela sortu genuen ehfurgo.eus bloga; webgune honek bi helburu nagusi ditu: aurrenekoa, egiten ditugun bidaiak konpartitu eta informazio hori besteentzat erabilgarri izatea (beste blog batzuk izan diren moduan). Bigarrena, Euskal Herria ezagutu eta ezagutaraztea da.

Helburu berarekin sortu da liburu hau ere. Bertan, hiri-buruez eta lekurik ezagunenez gain, ezagutzea merezi duten hainbat bailara, herri eta txoko ezagutzeko aste-buru pasako planak aurkituko dituzue; baita furgonetan lo egiteko lekuen eta bestelako bisita interesgarrien inguruko informazioa ere.

ESKERRAK:

Familiari.

Bidean zehar ezagutu ditugun ameslari guztiei.

Gomendio ezin hobeak eman dizkiguten lagunei.

Gure proiektuan sinistu eta bidelagun izan ditugunei.

ARABA



1. IBILBIDEA ARABAKO MENDIALDEA



Bujanda.

HERRIAK

DONE BIKENDI HARANA, KONTRASTA, SANTIKURUTZE KANPEZU, KORRES, IZKI, ARRAIA-MAEZTU, ANTOÑANA, BUJANDA, BERNEDO, URIZAHARRA.

Arabako kuadrilla edo eskualdeen artean ezezagunetako bat da Arabako Mendialdea. Izkiko mendien eta Kodes eta Lokiz mendilerroen artean kokatzen den haran hau ezusteko atsegina izango da bisitariarentzat, herri eta naturagune ederrak baititu. Antoñanaren eta Urizaharraren Erdi Aroko herriguneak, Vasco-Navarro bide berdea, eta Kanpezu, Bernedo edota Arraia-Maeztuko ondarea dira bere erakargune nagusietako batzuk.



Kontrastako harresiak.



Vasco-Navarro bide berdea

Antoñanaren kanpoaldean, erreka eta errepideaz bestalde, Vasco-Navarro trenbideko bide berdearen interpretazio zentroa dago. Eskualdean garrantzia handia izan zuen tren horrek, eta bertakoek *el trenecico* edo 'tren txikia' esaten zioten. 1927 eta 1967 artean egon zen martxan, eta Lizarra, Gasteiz eta Bergara elkartzen zituen. Antoñanako geltokian tren haren bagoietako batzuk egokitu dituzte

interpretazio zentro modura. Urrutira ematen du atentzioa, kanpotik kolore biziko grafiti bat baitu margotuta. Aurreneko bagoian, turismo bulegoa dago. Bigarrenean tren txikiaren historia errebasatzen dute, baita Izkiko parke naturalean eta eskualde osoan oinez nahiz bizikletan egin daitezkeen ibilbideen inguruko informazioa eman ere. Hirugarren bagoiak trena nolakoa zen irudikatzen du, erabiltzen

ziren altzari, uniforme eta txartelekin, besteak beste. Trenbide haren tokia eskualdea alderik alde zeharkatzen duen bide berdeak hartu du, eta oinez nahiz bizikletan, bailara ezagutzeko aukera ematen du. Ibilbide osoak 123 kilometroko luzera du, eta hiru zatitan banatuta dago. Mendialdeko eskualdean, Arraia-Maeztu, Antoñana eta Kanpezu zeharkatzen ditu. Bidean hainbat atsedentoki eta askaldegia dago.



Azazeta eta Opakuako portuetatik edo Lizarra aldetik sar daiteke baidarara. Gu Aguraindik eta Opakuatik barrena sartu gara eskualdean. Opakuako gainean paraje eta ibilaldi ederrak daude, baina asko daukagu ikusteko, eta aurrera jarraitzea erabaki dugu. Bidean atentzioa eman digu **Kontrasta** herri txikiak, eta bertan egin dugu aurreneko geldialdia.

Opakua portuaren magalean, 825 metroko altueran dago. Eliza-gotortu batek egiten du ongietorria, eta haren azpiko arkutik pasa behar da herrira sartzeko. Dorreak, kanoi-zuloak eta gezileihoak ditu, defentsarako eraiki zen seinale.

Herriak 1256. urtean lortu zuen hiribildu titulua. Herri osoa harresiz inguratu zuten; eta oraindik ere, osorik dago hainbat zatitan.

Bidean aurrera egin da, **Done Bikendi Harana** [San Vicente de Arana] herriarekin egin dugu topo. Ez genuen hari buruzko erreferentzia



Done Bikendi Harana.